

284. zk.

Bigarren aroa

Irailak 1
2016

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

Burdinazko iragana du
Irunek

5. orrialdean



Gorka Martinez

Jaizkibel mendia

10. orrialdean



CARLOS GARCÍA RECONDO

MENDI LASTERKARIA



- 3 Erreportajea Irungo Lorezaintza Zerbitzua.
- 4 Erreportajea Bilduma Azoka.
- 6 Caser Betharram Hondarribiko jaiak.
- 7 Berri laburrak.
- 8 Kirolak Bidasoak Asobal Ligan jokatu du.
- 11 Haurren Leihoa Hirubide LH1.
- 12 Gazteen Lanak Lekaenea LH3.
- 13 Gaztea Unai Oartzunek Rikardo Arregi saria jaso du.
- 14 Gazte infor
- 15 Agenda



Tartufa

jostailu denda



Hondarribia

Mixto Arzu 1

943.55.87.97



Irun

Fermin Calbetón 15 943.63.06.73

- ✗ Segurua
- ✗ Eraginkorra
- ✗ Erosoa
- ✗ Didaktikoa
- ✗ Dibertigarria
- ✗ Magikoa
- ✗ Ekologikoa
- ✗ Bakarria
- ✗ Biologikoa

Argazki lehiaketa



Arrate Morales

Lortu dugu! Berrero Asobalen egongo gara.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 38541

Colon Ibilbidea



1892ko abuztuaren 27ko Osoko Bilkuran Colon Ibilbidea izena jarri zioten. Policarpo Balzolak XIX. mendearen erdialdean idatzi zuen hiria zabaltzeko plana. Haren baitan, hirigunea tren geltokiarekin lotuko zuen hiribide handi bat eraikitzea jasotzen zen. 1865eko irailaren 30ean inauguratu zen, eta denbora luzez, kale horrek Avenida de la Estación izena eduki zuen. 1892ko abuztuaren 27an proposatu zuen Eusebio Pedrósek.

Goiko irundian XIX. mende bukaerako edo XX. mendearen hasierako argazkia ikus daiteke. 1936ko sutearen aurretik, arkitektura ederreko etxe ugari zegoen bertan, betiko galdu zirenak, adibidez: Palace Hotel, Casa Arístegui, Café de

Irun, Banco Guipuzcoano, etab.

Lehen oso ituxura desberdina zuen, espaloiak dezente zabalagoak zirelako, alde banatan zuhaitzen 2 errenkada eta galtzada estuagoa, 1908an zuhaitzak moztu ziren arte, galtzada alde bakoitzean 1,5m zabaltzeko.

Zertzelada bitxi gisa esan dezagun 1904an, Zabaltza plazaren ondoan, igogailua zuen lehenengo etxebizitza eraiki zela Irunen, eta behean, Irun-Club jolaserako elkarteak kokatu zela. 1912an Café-Irún inauguratu zen etxe beraren behealdean.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sansebastian.com

Argitaratzailea:

837 comunicación y

publicidad S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Tel: 693 828 099

Anaka kalea, 11
IRUN
943-61-54-57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943-64-54-57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Wazozaragoria de Politikoa Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



Iraunkortasunaren bila

Jarduera jasangarriaren bidea hartu du Irungo Udaleko lorezaintza zerbitzuak

Kolore bizietako lore eta landare erakargarriak ikus daitezke, udaran zehar, Irungo biribilguneetan, hiribideetan, parkeetan eta bestelako lorategietan. Hiria apaintzeko ahalegina egiten du Irungo Udalak urtero. Alabaina, hiritar gehienek aldaketa handirik nabaritu ez badute ere, hiriko lorezaintza zerbitzuan norabide aldaketa eman dute azken aldian. Jarraibide eta irizpide zehatzak hartu dituzte, lorezaintza iraunkorraren bidean.

Udal Haztegia du Irunek, Meaka auzoan. Donostiakoarekin batera, Gipuzkoako bakarra da. Horrek kudeaketa propioa edukitzeko aukera ematen dio lorezaintza zerbitzuaz arduratzen den lantaldeari. Alde batetik, lanerako material guztia gordetzen dute bertan. Baina gainera, loreak eta landareak ekoizteko azpiegiturak dituzte. Izan ere, Irungo kaleetan ikusten diren gehien-gehienak, bertan landatutakoak dira. Kanpotik, zuhaitzak eta zuhaixkak ekartzen dituzte bakarrik.

“Landare bizikorak hautatu ditugu.

Mantenu gutxiago behar dute, eta askoz gehiago irauten dute”

Esteban Jara, lorezaintza zerbitzuko arduraduna

Urtean 50.000 landare ekoiztera iritsi ziren Irungo Udal Haztegian, udaberria-udara eta udazkena-negua denboraldien arabera, sei hilero landareak aldatuz. Azken urteotan, ordea, joera aldatu dute, ingurumenarekiko arduragatik, baina arrazoi ekonomikoengatik ere bai. “Hiriko metro karratu berdeak gero eta gehiago dira, baina aurrekontua ezin da hainbeste handitu”, onartu du Esteban Jara lorezaintza zerbitzuaren arduradunak. Ia 820.000m² hartzen dituzte hiriko gune berdeek, eta Irungo Udalak, 1,5 milioi euro bideratzen ditu haien mantenturako.

Lorezaintza iraunkorrako baten alde urratsak ematen ari dira, hortaz, lorezaintza zerbitzuan. Alde batetik, ekoiz-

tutako landareen kopurua murriztu dute. 35.000 inguru dira, gaur egun. Jarak azpimarratu du horrek ez duela esan nahi kanpotik gehiago ekartzen dituztenik: “Sasoiko landareen ordez, kasu askotan, landare bizikorak hautatu ditugu. Mantenu gutxiago behar dute, eta askoz gehiago irauten dute”. Horrela, ez dituzte denboraldi bakoitzean landareak aldatu behar izaten. Landare bizikor batzuek, urte oso bat baino gehiago iraun dezakete.

Aitzitik, hiriko leku jakin batzuetan denboraldiaren arabera txandatzeko sistemari eusten diote oraindik. “Egia da landareak jartzeak eta kentzeak kolore gehiago ematen duela. Hori leku adierazgarrietan egiten dugu, San Juanen edo Luis Marianon, adibidez”, aitortu du Jarak. Dena den, puntu horietan ere, iraunkortasunaren aldeko gainerako neurriak aplikatzen dituzte. Esaterako, ongari kimikoak murriztu dituzte, eta abonua naturalekin ordez-

katu. Era berean, produktu fitosanitarioak ere ia zeharo ezabatu dituzte. “Horien ordez, gaixotasunen eta plagen kontrol biologikoa egiten dugu”, azaldu du Jarak.

Desgaitasunak dituzten langileak ditu zerbitzuak

Lorezaintza zerbitzuaren kontratuak gizarte klausula du, eta enplegurako gune berezientzat erreserbatua dago. Gaur egun, Gureak taldeko Goroldi enpresa da zerbitzuaren ardura duena. Hogeita hamabost langile ari dira guztira, eta horietatik hogeita zortzik ezintasun edo urritasun mota ezberdinak dituzte. “Zailtasunak dituzten kolektiboan lan insertziorako apustua ere egiten du zerbitzuak”, nabarmendu du Cristina Laborda Bide Publiko eta Mantenu arloko ordezkariak. Apirilaren eta irailaren artean, beste hamahiru langile kontratatzen ditu zerbitzuak, lan karga handiagoa izaten delako.

Orokorrean, hiritarrek lorezaintza zerbitzuaren lana errespetatzen dutela baieztatu du Esteban Jarak. Arazo puntual batzuk sortu izan direla onartu du, hala ere: “Erdiguneko lorategietan, betiko arazoak izaten dira. Haurrek zapaldu egiten dituzte, zakurrek zeharo hondatu etab.”. Biribilguneetan eta beste puntu batzuetan, landareak desagertu izan direla ere aitortu du arduradunak. Zentzu horretan, hiritarrentzako mezua luzatu du Cristina Labordak: “Lorategiak denonak dira, eta espazio horiek zaintzeko ekarpena denok egin behar dugu”.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ **Salmenta Alokairuak**
- ✓ **Promozio berriak**
- ✓ **Aholkularitza**

Beraketa kalea, 17 ● 20302 IRUN ● Tel: 943 626585
 info@inmobiliariaolaizola.com
 www.inmobiliariaolaizola.com

Pagotxaren bila

Bilduma Azoka hartu du Zabaltza plazak

Bero sapatekin esnatu da hiria, abuztuko azken larunbatean. Hondartzan edo igerilekuan uretan murgiltzeko giro aproposa ari du. Zabaltza plazan, ordea, erakustokiak atontzen ari dira goizeangoizetik. Bilduma Azokaren 9. edizioa egingo dute plazan, egun osoan zehar. Dozena bat bildumagile ariko dira haien objektuak erakusten eta saltzen.



Josema Martínez da ekimenaren antolatzaile nagusia. Azpimarratzeko moduko pertsonaia da, azken 50 urteetako Irungo musikaren historian. Hiriko lehen rock taldeetan aritu zen 60ko hamarkadan, Centro Musical Irunés denda erreferentea

zabaldu zuen 1970ean, eta hamarnaka kontzertu antolatu zituen hurrengo urteetan. Atsedene bat hartu du, binilozko diskoak prestatzen ari den bitartean, Jesus Etxeberria lagun zaharrekin hitz egiteko. Elkarrekin aritu ziren aspaldiko taldeetan, eta Back bandan elkartu dira berriro, gaur egun. "Azkenean, betikoak gara egurra ematen jarraitzen dugunak", aipatu du Etxeberriak. Rock musikari egin dio erreferentzia, baina bildumazaletasunarentzat ere balio dezake esaldiak.

Duela hogeita urte inguru antolatu zuen, Josema Martínezek, lehen Bilduma Azoka, Artaleku kiroldegian. Han egin zituzten lehen edizioak, baina bertan behera utzi behar izan zuten ekimena, eta duela bederatzita urte berreskuratu zuten, Zabaltza plazan. Josema Martínezek baieztatu du

Irungo Udalaren kolaborazioarekin pozik daudela, baina onartu du, espazioa ez dela nahi bezain handia: "Nahiko nituzke bildumagile gehiago ekarri, eta erakustoki gehiago jarri, baina leku handirik ez dugu". Hala ere, hamabi postu daude, gehienak,

inguruko bildumagileak. "Urteak daramatzagu mundu honetan, gehienok aspaldi eza gutzen dugu elkar" Josema Martínez, antolatzailea

dadin saiatzen naiz, ez daitezela denak diskoak edo liburuak izan". Lan zaila izaten den arren, aniztasun handi samarra aurki daiteke Zabaltzan. Kioskoaren alde batean, musika da protagonista ukaezina. Binilozko diskoak, KDak, kasete zintak, gitarrak eta baxuak etab. Josema Martínezek postu luzea jarri du, eta ehunka disko ditu "Centro Musical Irunés" inskripzioa daramaten kutxa gorrietan. "Beste estilo batzuk ere badituzte, baina nire espezialitatea 60-70eko hamarkadetako rock klasikoa da", aitortu du. Gero eta jende gehiago dabil postuan, jatorri, adin eta itxura ezberdinetakoa. Mod, skinhead eta punk estetika daraman jendea dabil,

batzuk Bilbotik, eta beste batzuk, baita Bartzelonatik ere etorritakoak. Behe Bidasoko musika panoraman ezagunak diren Joseba Ponce (Dut, Kuraia, JP Lohian) eta Aitor Perez (Apurtu, Defecto Humano, Kaos Kooperativ) ere ibili dira. "Disko bat erostekotan izan naiz, baina ez nago ziur etxean ote dudana edo ez", esan du Perezek. Bilduma ederra du musikariak etxean.

Bildumazaletasunaren mundu zabala
Kioskoaren beste aldean, musikaz harago doan beste unibertso bat dago. Denetarik topa daiteke: hiztegiak eta entziklopediak, eskolako materiala, eleberrak, poesia liburuak, aldizkariak, kromoak, jostailuak, baxerak, zeramika, bitxiak eta abar, eta abar. Rosa Velasco eta Isidro Agudiez bildumagile irundarrak haien postuetan daude, bezeroen zain. "Denetarik izaten da. Batzuk alde zuzenetik dakite, eta apropos etortzen dira. Beste batzuk paseoan daude, edo inguruko tabernetan aperitibo hartzen, eta zerbait dagoela ohartzen dira", azaldu du Velascok. Orokorrean, jendeari begiratzea gustatzen zaiola baieztatu du Agudiezek. Erosten dutenak gut-

xiengoa direla. Haien artean ere elkarri erosten diotela argitu du: "Buelta bat ematen dugu postuetan zehar, eta zerbait interesatzen baldin bazaigu, erosten dugu".

"Disko bat erostekotan izan naiz, baina ez nago ziur etxean ote dudana edo ez"
Aitor Perez, musikazalea

Erosle izan zen Isidro Agudiez, saltzaile baina lehenago. Galdetuz joan zen garai hartan, ea azokak nola funtzionatzen zuten, edo nor zen arduraduna: "Langabezia

gelditu nintzenean, irtenbide gisa ikusi nuen, diru gehigarri bat lortzeko". Gaur egun, bospasei azokatan parte hartzen du hilabeteetan: Hondarribian, Irunen, Errenterian, Pasaian etab. Egurrezko jostailuetan ari da espezializatzen: "Ez dira plastikozko jostailu arruntak, erabili eta zaborretara botatzekoak. Beste balio bat dute bildumazaleentzat". Gaur egun, egurrezko jostailu dezente ikus daiteke azoketan. Isidro Agudiezek azaldu du boladaka funtzionatzen duela: "Garai batean arropa asko egoten zen, adibidez". Zabaltzako azokan jada, ez da arroparik ikusten. Aukera zabala dago, hala ere, bildumazaletasunak zertan datzan ezagutu nahi duenarentzat.

15 Urte zurekin

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7

BAKAILAOA DASTA EZAZU



Burdinazko iragana

Burdin Aroan hasi ziren Aiako Harria zulatzen. Erromatarrek ere etekina atera zioten, eta Aro Modernotik aurrera, atzerriko konpainiek ustiatu zituzten Irungo meatzeak, Bigarren Mundu Gerraren garaian betiko abandonatu zituzten arte. 2008an, Irungo Udalak Irugurutzetako labeak eta meatzea bisitentzako atondu zituen, eta gaur egun, turista askok gehiago dakite Irungo meatzaritzari buruz, irundarrek beraiek baino.



Meatzeei lotutako historia luzea du Irunek. Bisita gidatuen bidez ezagutu daiteke, gaur egun.

Leku berezia da Aiako Harria. Pirinioen mendebaldeko muga, granitozko mendigune bakarra Gipuzkoan. Duela 250-300 milioi urte sortu zen. Mineralei dagokionez ere, oso aberatsa da. Burdina aurki daiteke, batez ere, baina zinka, zilarra, beruna eta bestelako mineralak ere bai. Hori dela eta, mendetan zehar ustiatu izan da. Burdin Aroan, jada, burdina ateratzen hasi ziren arbasoak, lehen erremintak eta armak egiteko.

Antzinako erromatarren garaian, Oiasso hiritik gertu, zilarra ateratzen zuten mehatzeetatik. Lehergailurik ez zuten, oso oinarritzko teknika erabiltzen zuten galeriak irekitzeko. "Sua pizten zuten, eta gau osoan zehar uzten zuten, arroka berotu zedin. Hurrengo egunean, ur hotza botatzen zioten, kontrastearen ondorioz apurtzeko", azaldu du Zohartzte Galán arkeologoa. Gida izaten da Galán, Oiasso Museoak kudeatzen dituen bisitetan. Erromatarren sistema horren bidez egindako galeriak ikus daitezke oraindik, Irugurutzetako labeetan. 90 zentimetro inguruko zabalera dutela argitu du Galánek: "Estuak dira, garai modernoagoetan egindakoekin alderatuta".

Dinamita eta bestelako lehergailuak erabili, galeria zabalagoak eta sakona-

goak egin zituzten XIX.mendetik aurrera. Bisitetan ikus daitekeena, 150 metro ingurukoa da. Aurrera jarraitzen du beste galeria batek, baina luizi bat dago, eta arkeologoek ezin izan dute jakin noraino iristen den. Hala ere, bisita daitekeen lurrazpiko eremuak lagin gisa balio du. Mineralen hondarrak daude oraindik, kolore bizi eta deigarrietakoak. Laranja burdin oxidoarena da, zuria, kaltzioarena, eta urdin turkesa, kobrea-rena.

Prozesuaren bigarren zatia: labeak

Gaur egun bisita daitekeen galeriaren parean, Irugurutzetako labeak daude. Bederatzi dira guztira, angeluzuzenak batzuk, biribilak besteak. Hamaika ere izan ziren garai batean, labe multzo handia, inguruan daudenekin alderatuta. "Gipuzkoako bigarren handiena, Zeraingoaren ondoren", zehaztu du Galánek. Minerala

“Erromatarren garaiko galeriak estuak dira, garai modernoetan egindakoekin alderatuta”

Zohartzte Galán, arkeologoa

“Gipuzkoako bigarren handiena da Irugurutzetako labeen multzoa”

Zohartzte Galán, arkeologoa

eraldatzeko erabili ziren labeak, Aro Garaikidean. Burdin oxidoa zen mineral preziatuena, baina eskasa, eta topatzen zaila. Burdin karbonatoa askoz ere eskuragarriagoa da, eta tenperatura altuen eraginpean jarrita, burdin oxido bilakatzen da.

Adreilu erregogorrezkoak ziren labeak barrutik, tenperatura altuei ondo eusten dielako. "Burdin karbonato tona bakoitzeko, 30 kilo ikatz sartzen zuten labeetan, eta su ematen zioten ondoren, prozesu kimikoa eragiteko", adierazi du Zohartzte Galánek. Minerala bagonetetan ekartzen zuten lehenago, mendian gora zeuden galerietatik. Gero, labeen

gainen dagoen terrazatik botatzen zuten. Behin burdin oxido bilakatura, labeen azpian zain egoten zen trenaren bagoietara botatzen zuten. Handik Hen-

daiara eramaten zuten, bertatik Frantzia aldera edo Belgikara bideratzeko. Edo Pasaiara bestela, itsasontzietan Bilboko

Itsasadarrera, Labe Garaietara eramateko.

Konpainia frantsesak, belgikarrak eta ingelesak aritu ziren, batez ere, Irugurutzetan. XIX.mendearen amaiera aldera, Irungo lurzoruko 1.700 hektarea baino gehiago meatzaritzarako erabiltzen ziren. XX.mendearen hasieran, Bizkaiko kapitala zuen *Minas de Irun y Lesaca* enpresak hartu zuen Irugurutzetaren kudeaketa. 1936 urtean, kapital alemana zuen *Compañía de Explotaciones Minas Aralar* enpresaren esku gelditu zen. 1941 urtean utzi zuen, Bigarren Mundu Gerraren garaian. Hamarkadak eman zituen abandonatuta, ahaztuta, Meaka auzoko zoko ilun batean.

Irugurutzetara bisitak, Tren Berdean:

Noiz? Igandeetan 11:00etan, Oiasso Museotik.

Prezioa: 5,40 euro helduek, 3,70 euro haurrek, eta doan zazpi urtetik beherakoentzat.

Izena emateko: 943 63 93 53.



www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT





HONDARRIBIKO JAIAK CASER BETHARRAMEN

AGENDA

Irailak 1: Entsegua Joaquina Goñi Kantinerarekin.

Irailak 2: Meza berezia.

Irailak 3: Alardea egingo dute Joaquina Goñi Kantinerarekin eta Mendeluko konpainiarekin.

Irailak 5: Txangoa Guadalupera.

Irailak 6: Marrazki lehiaketa umeentzat.

Irailak 8: Alardearen emankizuna ikusiko dute zentroan bertan.

Irailak 10: Bazkaria Ardora jatetxean.

Irailak 11: Kontxako Estropaden emankizuna ikusiko dute zentroan bertan.



Kantina aukeratu dute aurten ere Caser Betharramen. 96 urteko Joaquina Goñik jaso du bozka gehien, eta Betharram 2016ko kantinera izango da. Zentroko fisioterapeutak animatu zuen kantinera aurkeztera: "Kontent baina lasai jaso nuen berria", aipatu du Goñik. Irailaren 3an irteera bat egingo dute Gibeleta auzoan, Mendelu konpainiarekin eta bere kantinerarekin, Sara Escalanterekin.



Irailaren 30era arte eska daitezke eskolako materiala erosteko laguntzak

200.000 euro bideratuko ditu aurten Irungo Udalak eskolako materiala erosten laguntzeko. *Erosi eta ikasi Irunen* kanpainaren hirugarren deialdia da, eta irailaren 30era arteko epea dute familiek diru-laguntzak eskatzeko. Lehen eta Bigarren Hezkuntza ari diren, eta Irunen erroldatuta dauden haurren eta gazteen familiei zuzendutako kanpaina da. Gainera, Irungo komertzioetan kontsumoa sustatzeko modua ere badela azpimarratu du Miguel Ángel Páez Sustapen Ekonomikoko ordezkariak. Hori baita baldintza nagusietako bat.

Irungo dendetan eskolako materiala erosi ondoren, faktu-

rak gorde beharko dituzte familiek, gastuak justifikatu ahal izateko. Hiru neurritan emango dituzte diru-laguntzak, familien errentaren arabera. 100, 75 edo 50 euro emango ditu Irungo Udalak, haur bakoitzeko. Iazkoak baino kopuru handiagoak dira. Josune Gomez Hezkuntza arloko ordezkariak argudiatu du kanpainak arrakasta izan duela aurreko edizioetan: "Babes handia da familientzat, eskolara bueltak ekar ditzakeen gastuen aurrean". Batz bestea, 1.500 eskaera jaso izan dira urteko, 2.000 haur ingururentzako laguntzak eskatzeko. Irun.org web gunean egin daiteke eskaera, baina Irun Txartela beharrezkoa da horretarako.

Bidasoko Trenbideari eskaini dio udara Kabigorrik



Tren Txikito edo Bidasoko Trenbideari buruzko erakusketa ikus daiteke irailaren 10era arte Kabigorri Ateneoan. Jose Mari Castillo argazkilaria eta bildumazaleak osatu du erakusketa, 28 argazkirekin eta aspaldiko egunkarietako kopiekin. Irungo Kostorbe geltoki nagusiaren, makinaren, bagoien eta beste eraikinen bilakaera, eta desagertzearen ondoren trenbideak utzi zituen hondakinak ikus daitezke.

Duela 100 urte egin zuen lehen bidaia publikoa Tren Txikitok, eta duela 50, azkena. 1890 urtean inauguratu zuten, hasieran, En-

darlatsaraino zihoan meatzeetako tren gisa. Gero, 40 urtez zerbitzu publikoa bete zuen, Behe Bidasoa Nafarroa iparraldeko herriekin lotzeko. 1956ko abenduaren 31n itxi zuten.

Ostegunetik larunbatera 19:00etatik aurrera ikus daiteke erakusketa. Igandeetan, berriz, 17:00etan zabaltzen ditu ateak Kabigorri Ateneoak. Peña kaleko lehenengo zenbakian dago.

Berrogeita hamargarren edizioa berteko du Adour-Bidasoa Margo Lehiaketak

2016ko Adour-Bidasoa Margo Lehiaketa antolatu du Irungo Udalak. 50.edizioa izango da, eta adin nagusiko artista eta margo zale guztiei irekita dago. Obra bakarra aurkeztu ahal izango du parte hartzaile bakoitzak, originala, eta beste lehiaketetan saritu gabekoa. 80 eta 150 zentimetro arteko neurria izan beharko du lanaren alde bakoitzak. Gaia eta teknika, aldiz, erabat libreak izango dira.

Epaimahaiak 2.500 euroko Sari Nagusia emango dio lanik onenari. 30 urtetik beharagoen artean, Artista Gaztearen saria emango dute, 500 euroekin. Beste 500 euro emango dizkiote Epaimahaiaren Sari

Berezia jasotzen duenari. Finalista guztiek diplomak jasoko dituzte. Sari banaketa irailaren 23an izango da Amaia Kultur Zentroan, hautatutako obren erakusketa-aren aurkezpenarekin batera.

Lanak irailaren 1etik 6ra aurkez daitezke, biak barne, Amaia Kultur Zentroan (López de Becerra kaleko sarreratik). Orduetgia ondorengoa izango da: 11:00-14:00 eta 16:00-20:00 asteleheneetik larunbatera, eta igandeetan, goizez bakarrik. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, 010/943 50 51 52 telefono zenbakira deitu, edo Kultura arlorra (Urdanibia plaza, 6) edo Amaia Kultur Zentrora jo daiteke.

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01

Hazkundearen bila

Asobal Ligan egonkortzeko helburuak erakarrita heldu da Jacobo Cuétara Bidasoara



Erronka handia izango du Bidasoa-Irun eskubaloi taldeak irailaren 10etik aurrera. Desafio gogorra eta zaila. Asobal Ligan, estatuko goi mailan ariko baita, jaitsiera ekiditeko helburu argiarekin. Horretarako, klubak taldea indartu behar izan du, ekainean eta uztailean. Aldatu duen lehenengo pieza, entrenatzailearena izan da. Jacobo Cuétara Larreak bi denboraldirako kontratua sinatu du. 36 urteko asturiarra da, Ribadesellan jaioa. Asobal Ligako Villa de Aranda taldean egin ditu azken hiru denboraldiak.

tentzial handia eta hobetzeko tartea dituelako”, aipatu du Cuétarak. Etorkizunari begira, hain zuzen, klubak nabarmendu du Cuétarak lotura estua izango duela harrobiko arduradunekin: “Estruktura integrala eduki behar dugu. Lan ildo bat, eta filosofia bat, behetik goraino. Horretarako, denok bat egin behar dugu”. Jokalarien formazioan arreta jarriko duela baieztatu du, baina azpimarratuz ez duela oparirik egingo. “Jauzia emateko jokalaria gogor lan egin eta prest egon beharko du”, aitortu du entrenatzaileak.

jokatzeo aukera izan zuen Bidasoak, Atlético de Madrid taldearen desagertzearen ondorioz. Baina orduan prestatutako taldeak, ez zuen maila eman. Esperientzia hura kontuan hartuta, beste neurri bateko ahalegina egin behar izan dute aurretan. Aurreko denboraldirako datorren oinarri sendo bat mantendu du Bidasoak. Alabaina, postu jakin batzuk indartu ditu. “Alde batetik, defentsako jokalaria gehiago ditugu. Bestetik, indarra eta altuera gehitu ditugu. Hori, Asobal Ligan, asko nabaritzen da”, azaldu du Cuétarak. Talde batzuek diru asko inbertitzen dute zaspiko nagusian, eta gutxiago jokalaria horien ordezkongean. Cuétarak adierazi du nahiago izan dutela talde orekatua osatu: “Iraupen luzeko esfortzuetarako taldea dugu. Denboraldi osoari aurre egiteko modukoa”.

Cuétararen lehenengo helburua, edonola ere, Bidasoa-Irun Asobal Ligan mantentzea izango da. Ohartarazi du lehenengo urtean lan zaila izango dutela: “Asobal Ligarako jauzia handia da, oraindik ere. Iaz, esaterako, Teucrok lehen itzuli bikaina egin zuen arren, azkenean, maila galdu zuen”. Lehiaketa luzea da, eta talde bakoitza bere lekuan jartzen du azkenean. Cuétarak aurreikusitako mailari eusteko lehia bereziki gogorra izango dela aurretan, Valladolid eta Bidasoa igo direla kontuan hartuta. Entrenatzaileak uste du helburua betetzeko oinarria Artalekun egongo dela: “Zaleen ilusioa eta babesa baliatu behar ditugu, lehiakorragoak izateko. Puntu gehien gehienak Artalekun bildu beharko ditugu, Asobal Ligan etxetik kanpo irabaztea oso zaila baita”.

Jokalaria hasi dira Jacobo Cuétararen izaera eta lan metodologia ezagutzen. Gogor entrenatu dute denboraldiaurrean. Jende gehienak dio Cuétara langilea, zorrotza eta metodikoa dela. “Niri iruditzen zait ezaugarri horiek gutxienezkoak direla edozein entrenatzailearentzat”, aipatu du, irribarrez. Xehetasun gehiago eman ditu, dena den: “Goi mailako kirola profesio gisa ulertzen dut, lanaldi osoa, eta planifikazio eta azterketa handiak eskatzen dituena”. Jokoari dagokionez, baieztatu du taldearen onura biltzen duela, jokalarien arrakasta pertsonalaren gainetik. Talde lan fina beharko du Bidasoa-Irunek, 2016-2017 denboraldian Asobal Ligari eusteko

helburua betetzeko. Irailaren 10ean hasiko da bidaia, Villa de Arandaren pabiloian, Cuétararen aurreko etxean.

Erabaki polemikoa hartu zuen C.D.Bidasoak ekainean, Asobal Ligara igo ondorengo ospakizunen artean. Ez zuen Fernando Bolea entrenatzailearen kontratua luzatu, apirilean harekin hitzartutakoa bete gabe. José Ángel Sodupe presidentek berak onartu zuen akatsa. Hala ere, aurrera jarraitzeko beharra aldarrikatu zuen Iñaki Emaldi presidenteordeak: “Hanka-sartzeak izango ditugu, baina denborak sendatzen ditu zauriak. Klubak ezin du geldirik egon. Herria eta historia ditugu atzean, eta gure betebeharra Bidasoak etorkizun onena izan dezan lan egitea da”. Segidan, hurrengo entrenatzailearen berri eman zuen Emaldik.

“Proiektu interesgarria da, potentzial handia eta hobetzeko tartea dituelako”
Jacobo Cuétara

Jacobo Cuétararen curriculumaz azpimarratu zuen, kontuan hartzeko modukoa baita. Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Zientzietan lizentziatua da, eta karrera amaierako saria eman zioten, espediente onenagatik. Maila nazionalako entrenat-

zailea da eskubaloian, baina boleibol-ean eta fisiokulturismoan ere bai. Leonen ikasketak burutzen ari zela, Ademarren lanean hasi zen. Oinarriko taldeetako entrenatzaile izan zen hasteko, harrobien arduradun ondoren, eta lehen taldeko prestatzaile fisiko eta bigarren entrenatzaile, beranduago. Hiru “maisur handi” izan zituela onartu du: Manolo Cadenas, Isidoro Martínez eta Jordi Ribera.

Entrenatzailearen ezaugarriak eta planteamendua

Azken hiru denboraldietan, Villa de Aranda taldea zuzendu du Cuétarak, Asobal Ligan. Mailari eusteko sufritzetik, Europako lehiara eramandu du Burgosko taldea. Bertako etapa amaitu dela irudituz, ordea: “Aldaketa bat behar nuen. Ilusioa eragingo zidan beste proiektu bat, hazteko aukera emango zidana”. Bidasoaren eskaintza ez baitu izenagatik eta historiagatik soilik hautatu. “Proiektu interesgarria da, po-

Talde lana, banakakoaren gainetik
 2013-2014 denboraldian ere Asobal Ligan

CARLOS GARCÍA RECONDO, mendi lasterkaria:

“Lasterketa gutxiago egin nahi ditut, bakoitza gehiago gozatzeko”



Vimeo plataforman ikus daiteke David Arretxeren “Conociendo a Carlos García” bideoa. Bost minutuko ikus-entzunezko laburra nahikoa da Erlaitz Mendi Elkarteko Mugalarien sekzioko taldekideek zenbat miresten duten ikusteko. Umiltasuna, lasaitasuna eta adiskidetasuna hitzak errepikatzen dituzte behin baino gehiagotan, arlo pertsonalaz galdetuta. Kirolari dagokionez, lehiakortasuna da denen ahotan dabilen ezaugarria.

Berandu hasi zen mendi lasterketetan, baina sei urteko epean, palmares ikusgarria osatu du Carlos García. Beteranoen mailan, Euskadiko Txapeldun izan da lau aldiz, eta Espainiako Txapelketako podiumeko hiru koskak probatu ditu. Azken aldian Ultra Trail-etan saiatu da; Euskadiko Txapeldun izan zen iaz, eta Espainiako hirugarren, aurten, Montsenyn (Katalunia).

Errepidean korrika ibili al zinen, mendian baino lehenago?

Duela sei urte inguru hasi nintzen korrika. San Silbestre lasterketa bat prestatu nuen emaztearekin, eta ikaragarri disfrutatu nuen. Lehenago sekula korrika egin gabe ere, ondo ikusi nuen nire burua. Nire hurrengo ilusioa Behobia-Donostia prestatzea izan zen, eta astean bizpahiru aldiz entrenatzen hasi nintzen. Asko gustatu zitzaidan Behobiako esperientzia. Baina mendizalea ere banintzen, eta lagun batek Berako Mendi Maratoi Erdian probatzera animatu ninduen. Horrek erabat harrapatu ninduen. Orduetik aurrera, mendian korrika egiteari ekin nion.

Zer da gehien erakarri zintuena?

Alde batetik, mendiarekin eta ingurumenarekin kontaktuan egoteko aukera. Bestetik, mendia ez dela asfaltoa bezain mingarria. Talka ez da horren handia.

Dena den, arrazoi nagusia, taldeko giroa izan zela esango nuke.

Erlaitz Mendi Elkarteko Mugalarien taldeak ari zara. Nola deskribatuko zenuke?

Bai, Erlaitzen federatu nintzen, eta Mugalarien taldea ezagutu nuen. Entrenatzeko giro ederra topatu nuen. Pixkanaka, Aiako Harria natura parkea goitik behera ezagutu nuen, eta irteerak egiten hasi ginen. Oso talde zabala da, baina primeran moldatzen gara. Ez dut sekula ahaztuko, Euskadiko Kopa irabazi nuenean, taldekideek egin zidaten omenaldia.

Zein garaipen gogoratzen duzu bereziki?

Gehien poztu nauena, beteranoen mailan Zegama-Aizkorri lasterketa irabaztea izan da. Sekulako ilusioa nuen lasterketa horretan parte hartzeko, eta 2015ean lortu nuen. Motibazio handiarekin joan nintzen, ametsa betetzea izan baitzen niretzat. Hegan joango banintz bezala izan zen.

Taldekideek zure lehiakortasuna azpimarratzen dute. Ados al zaude?

Bai, egia da dortsala jartzen dudanean, dena ematen dudala. Ezin dut dortsala jarrita lasai ibili. Horretarako, ez nuke lasterketa batean izena emango. Entrenatzerakoan, ordea, ez daukat arazorik lagunekin lasai joateko.

Entrenamenduen maila eta kopurua handitu behar izango zenituen, hala ere.

Egunero, edo ia egunero entrenatzen dut gaur egun. Ez da erraza, familia eta lana ere baditudalako. Baina egunean ordu bete hartzen ahalegintzen naiz. Jaizkibel etxetik gertu dut, eta bertara joaten naiz astean zehar. Gero, asteburuetan, irteera luzeren bat egiten saiatzen naiz. Ultra Trail-etan ibili nahi dut orain, lasterketa laburragoak alde batera utziaz.

Zein da arrazoiak?

Lasterketa gutxiago egin nahi ditut, egiten dudana bakoitza gehiago disfrutatzeke, eta lesioak saihesteko. Gehiago zaindu nahi dut nire burua, susto handia hartu baitut aurten maiatzean, Zegama-Aizkorri, errespetua galdu niolako mendiari. Meteorologia aurreikuspena oso txarra zen, baina irteeraren unean halako arriskurik ikusi ez nuenez, arropa gutxirekin irten nintzen. Hipotermiarekin amaitu nuen, eta oso gaizki pasa nuen. Ikusmena galdu nuen, oreka ere bai, eta lesionatu egin nintzen, hainbat aldiz erori nintzelako. Egun hartan ulertu nuen segurtasuna dela garrantzitsua.

Ehun Milak lasterketa ere utzi behar izan zenuen, uztailean. Lesio horren ondorioz?

Bai. Aldakan min handia hartu nuen Zegama, eta oraindik ere, jaitsieretan asko sufritzen dut. Fisioterapeutak lan handia egin zuen, Ehun Milak lasterketan irten ahal izateko. Baina 70.kilometrora arte eutsi nion lasterketari. Gaur egun uste dut

alferrik sufritzeak ez duela zentzurik. Hor-taz, arazorik gabe utzi nuen lasterketa. Etorriko dira beste aukera batzuk.

70 kilometro egin zenituen, eta hala ere, lasterketaren erdia baino gehiago falta zitzaizun. Erokeria dirudi.

Bai, nik 80-90-100 kilometroko lasterketak egin izan ditut, baina Ehun Milak beste maila batekoa kontua da. Benetako astakeria da, oso-oso gogorra. Ostiral arratsaldean irteten zara, eta kasurik onenean, larunbatean ilundu baino lehen iristen zara. Bestela, hurrengo gaua ere eman behar duzu korrika.

Zein da zure hurrengo helburu nagusia?

UTMB, Mont Blanc mendiari itzuli osoa ematen dion Ultra Trail lasterketa. Horretarako, 2017an lasterketa horren bertsio laburra egingo dut, 100 kilometrokoa. Eta 2018an, luzea, 170 kilometrokoa. Gainera, aurtengo arantza kendu nahi dut Zegama-Aizkorri.

Gero eta lasterketa luzeagoak egin nahi dituzu? Ez al dago mugarik?

Bai, lagunek ere egiten dutela ikusten duzu, eta bizioa hartzen diozu. Abantailak ere badituzte Ultra Trail-ek, ez pentsa dena sufrimendua denik. Ez zara beti hauspoa estututa joan behar, adibidez, eta lasaiago zoazenez, paisaiak gehiago gozatzeko aukera izaten duzu. Turismoa egiteko modua ere bada. Aurten Kanariar Uharteetan egon naiz, Transgrancanaria lasterketa egiten, edo Montseny mendilerroan, adibidez.

Zein izaten da, zuretzat, zailtasunik handiena?

Sabeleko arazoak. Aldaketa asko egin ditut elikaduran, baina oraindik ez dut formula egokiena topatu. Hezetasunak ere eragina izan dezake sabelean. Orokorrean, faktore asko dira kontuan hartu beharrekoak. Nahiz eta ondo prestatuta joan, es- pero ez duzun edozer gerta dakizuke.

GORKA MARTINEZ



Jaizkibel mendia (545m) oso ezaguna da Euskal Herrian. Itsaslabar eta kala ikusgarriek bisitari mordoa erakartzen dute urtero. Jaizkibel mendiaren tontorrera, aldiz, ez da horrenbeste jende hurbiltzen. Urrutitik ikusten diren antena erraldoien parean dago postontzi txikia. Guadalupeko ermitatik irteten da ibilbide ohikoena, baina laburra da, eta ez du ahalegin handirik eskatzen. Jaitzubia auzotik, aldiz, ibilbide biribil ederra egin daiteke.

Kontuan hartu behar da ibilbidearen zatirik handienak ez duela seinalerik. Hortaz, gomendagarria da GPS track-a erabiltzea (unpaisenmimochila.blogspot.com-en aurkitu daiteke).

JAIZKIBEL (545 M) JAITZUBIA AUZOTIK (HONDARRIBIA)

Hondarribiko Jaitzubia auzoaren sarreran dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa. Ondoren Jaizkibel aldera doan errepidea hartuko dugu, "Kamio" eta "Kaikuegi" baserrietarako norabidea argitzen duten seinaleei jarraituta. Asfaltozko errepidea harrizko pista bihurtuko da, eta minutu gutxiren buruan, bidezka txiki bat hartu beharko dugu, bidegurutze batean. Udaran ezkutuan gera daiteke, iratzeen artean. Bide estua da, baina ondo markatua. Igoera zuzena da, eta Jaizkibel mendia zeharkatzen duten lurrezko pistak gurutzatuko ditugu, antenetara bidean.

Ibilbideko lehen ordua betetzerako, Jaizkibel mendiaren goiko aldera iritsiko gara. Antenak ezker aldean geldituko dira. Gertu daudela irudituko zaigu, baina beste ordu erdi eman beharko dugu, magalean gora, haietara ailegatzeko. Antenen parean dago postontzia (545m). Bertan, Gipuzkoako kostaldearen ikuspegi paregabeaz gozatu ahal izango dugu.

Jaitsierari ekiteko, tontorrera ekarri gaituen bidetik bueltatu beharko dugu, Jaizkibelgo begiratokiraino. Leku ezaguna da, kotxez hurbiltzea erraza baita. Hala ere, bertako ikuspegiak behin baino gehiagotan bisita egitea merezi du. Begiratokitik aurrera, bide belartsua hartuko dugu, eta Guadaluperaino eramango gaitu (2:15). Azken txanpan, malda pikoa jaitsi beharko dugu.

Guadalupen atsedean hartu ondoren, jaitsieraren bigarren zatiari ekingo diogu. Horretarako, ermitaren pareko aparkalekuaren atzetik irteten den lurrezko pista hartuko dugu. Hondarribiko Arkolla auzoraino iritsiko gara. Bertan, Jaitzubiako padurak zeharkatzen dituen bide berdea hartuko dugu, eta laster helduko gara Jaitzubiko aparkalekura (3 ordu).




Bidaia eta ibilbide gehiago: unpaisenmimochila.blogspot.com

IGARKIZUNAK

Bost seme-alaba ditugu
 nik eta araba bikiak;
 bost seme-alaba ditugu
 eta reguan jartsiak.

(gorka)



Ez da kafea
 ez da esnea
 ez da txuria
 ez da beltza
 baina sartitan
 elkarrekin dabilta.

(kagesna)

Ihes egin nahi badut
 atzeruka naiz,
 itzazkan zain erretokan,
 beina beti erretan.
 Nor naiz?

(karramorra)



Bitxia izan arren,
 Lortea naiz, aita!
 Nire izen ordea
 ba ote dakizu?

(lortea)

Elatzeta <> 2. maila





Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27
 943 635259
 IRUN
 J. M. Iparragirre
 kalea, 10 - behe 4
 IRUN
 652 777 360
kettysacademy@gmail.com

EGONALDIAK EEUetako famillirekin



Ingelesa 4 urtetik aurrera !!

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

GURE MASKOTAK

SULTAN

Nire maskotak Sultan izena zuen. Txakur handia eta polita zen. Ilaje marroia eta beltza zeukan. Sultan atezain ona zen. Urtero, baloi bat zulatzen zuen eta gero berria ez zuen nahi. Gainera, mendira joaten ginenean baloirik gabe, beste haurren baloia hartzen zuen. Zaindaria ona ere bazen. Txikitan, erortzen nitzenean, kamisetatik hartu eta altxatzen ninduen. Sultan familiako kuttura zen. Faltan botatzen dugu.



Alberto Rodríguez LH5



BETTY

Nire maskotak Betty du izena. Bere ilajea zuria da. Lau hanka txikiak ditu eta isatsa luzea du. Bere begiak marroiak dira. Nire txakurra alai eta jostaria da, Ni bakarrik nagoenean niregana etortzen da eta berarekin jolasten dut. Pozik dagoenean harkaz gora jartzen da. Kilimak egitea asko gustatzen zaio. Mimoti hutsa da, Nire txakurra maitekorra da!

Raúl Filip LH5

S.R.A. andereari jasoa (1959-V-4). Duela 60, 70 eta 80 urte, asko kantatzen zen herri koplak

(El Bidasoa, 1959-VI-20)

Andre Madalen

Andre Madalen
Andre Madalen
laurden erdi bat oriyok
attak jorنال
ekarritzian
amak pagatuko diyo

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Merkatuko produkturik onenak sukaldatzen ditugu



Maria Juncal Labandibar, 36 BEHOBIA, 943 620071

UNAI OIARTZUN, Iruneroko kazetaria eta Rikardo Arregi-Kazetari Berria Sariaren irabazlea



Ahaleginak, lanak eta talentuak konbinazio egokia osatzen dute. Kasu honetan, Unai Oiartzun Iruneroko lankideak Rikardo Arregi Kazetari Berria saria jaso du, urteko euskal kazetari gazte onenak jasotzen duen aitortpena. Unai Oiartzunek Kazetaritza ikasi zuen EHU, Leioan, 24 urte ditu, 2014az geroztik Iruneron lanean ari da, eta aurten, idazteaz gainera, argitaratzen dena zuzentzearen ardura du.

Nola jakin zenuen Rikardo Arregi sari prestigiotsua jasoko zenuela?

Ekainaren hasiera aldera izan zen. Telefono dei bat jaso nuen, eta Andoaingo Udaletik deitzen zidatela esan zidatenean, bihotz taupadak bizkortu zitzaizkidan. Lan batzuk aurkeztuta nituen, eta banekien Andoaingo Udalak antolatzen zituela sariak. Kazetari Berria saria emango zidatela jakin nuenean, sekulako poza sentitu nuen. Horrelako aitortzen bat jasotzen duzun arte, ez dakizu zure lanak benetan zein balio duen.

Berriak zabalkunde handia izan zuen komunikabide askotan. Zorion mezu asko jaso zenituen?

Zorionak, egia esan, oso gertuko jendeak eman dizkit, batez ere. Eta horiek dira, hain zuzen ere, gehien inporta zaizkidanak.

Gero, egia da berriak oihartzun handia

izan duela. Ezagutzen ez ninduen baten bat ere ibili da nitaz galdezka. Kontuan hartu behar da, orain arte tokiko hedabideetan ibili naizela lanean, nahiko eremu mugatua. Alde horretatik, ondo etor daiten, mugak pixka bat zabaltzeko.

Nolako izan zen sari banaketaren ekitaldia?

Protokolozkoa, nire ustez. Ez dut halako ekitaldietan parte hartzeko ohitura handirik. Hala ere, pozgarria izan zen epaimahaiko kideen iritziak entzutea, adibidez. Nik ere eskerrak emateko, eta tokiko komunikabideen lana goraiatzeko baliatu nuen aukera. Senideak bertan izan ziren, eta ederra izan zen unea haiekin konpartitzea.

Nola definituko zenuke zure lana?

Lan erromantikoaren itxura izan dezake: jendea ezagutu, elkarrizketatu, haien inguruan idatzi... Egia da bizipen ederrak

ematen dituela, eta momentu batzuetan asebeteta sentitzeko aukera ematen duela.

Baina alde ilunak ere baditu, azalean ikusten ez direnak. Alde batetik, giza harremanak beti ez direlako atseginak eta erosoak. Bestetik, ordutegi finko bat edukitzea, eta lanetik ateratzerakoan deskonektatzea oso zaila delako.

Zergatik erabaki zenuen Kazetaritza ikastea?

Gezurra esango nuke bokazio kontua izan zela esango banu. Egia esan, beste aukera batzuk baztertzaren poderioz iritsi nintzen erabakia hartzera. Niri idaztearekin harremana zuten irakasgaiak gustatzen zitzaizkidan. Filologia edo Historia ikastea ere planteatu nuen, baina momentu hartan ez nuen nire burua irakasle ikusten. Horrela iritsi nintzen kazetari izatera.

Egungo kazetaritza ez dago momenturik onenean. Nola ikusten duzu egoera?

Hasteko, kazetaritza krisi etengabea izan da aspalditik. Beti egon izan da zalantzan, baina beti egin du aurrera, kazetaritza ona behar-beharrezkoa delako. Orain, interneten garaian, beste arazo batzuk sortu zaizkio. Kazetaritza egitea inoiz baino errazagoa da, baina hura errentagarri izatea, aldez, inoiz baino zailagoa. Negozio eredu tradizionala dago krisian, kazetaritza bera baino gehiago. Beste formula batzuk bilatu beharko dira.

Hala ere, Irunerok doako edukia eskaintzen du paperean. Albiste ona da, ezta?

Ona da, Irun hiriak euskarazko erreferenteak behar dituelako, arlo guztietan. Aldizkari erakargarri bat euskaraz ekoiztea eta doan banatzea euskararen normalizaziorako ekarpen garrantzitsua dela uste dut.

Iruneron idatzi dituzun erreportajeen, elkarrizketen eta albisteen artean, zein aukeratuko zenuke?

Ni gehien asebetetzen nauena erreportaje sakonak idaztea da. Gaia konplikatu baldin bada, are gehiago, erronka gisa hartzen baitut. Horregatik, bat aukeratzekotan, eskualdeko haur transexualei buruz egin nuena izango litzateke.

Euskarari dagokionez, nola ikusten duzu egoera Irunen? Eta urte batzuk barru?

Irun ezagutzen ez duen jende askok ikuspegi apokaliptikoa du hiriaren inguruan. Hori ere ez da egia. Irunen euskaldunak badaude, eta euskarak arnas gune batzuk baditu Irunen. Oso konkretuak dira, hala ere, eta hiriko beste puntuetara hedatzeko lan handia egin beharra dago, erakundeen, beste elkardeen edo gurea bezalako komunikabideen, eta herritarren partetik. Hiriaren errealitatea urtetan zein izan den, eta gaur egun ere nolako den onartu behar dugu, eta hortik aurrera, urrats txikiak emanez aurrera egin.

Zorionak Unai!

Eskerrik asko! Niretzat berezia izan da elkarrizketari erantzutea, Iruneron egindako lanari esker lortu baitut saria. Irunerorentzat bultzada gisa balio dezan ere nahi nuke.

,SOROSLE ETA LEHEN SOROSPEN IKASTAROA DONOSTIAN. LARUNBATETAN!

Zer? Nahi duten ikasleek Sorospen titulua eskura dezakete kurtso amaieran egiten diren kalifikazio probak gaindituz.



DYA
GIPUZKOA



Datak: Irailaren 3tik 24ra.

Ordutegia:

09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 19:00etara.

Lekua: DYako Formazio eta Boluntariotza Gunean (Baratzategi kalea, 10 - Intxaurrondo auzoa - Donostia).

Izen emateak: deitu 943 46 46 22ra.

Matrikula: 110 euro.

Informazio gehiago: DYA Gipuzkoa.

IRUNGO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Zer? Matrikula Ofiziala. 2016-2017 ikasturterako

Epea: irailaren 1etik 19ko 13:00ak arte (interneten bidez egin behar da web-orri hauetan: www.eoiirun-hez.kuntza.net edo www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/hizkuntzak)

Hizkuntzak: Alemana, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa
* Maila guztiak.

* Adina: 14 urtetik aurrera.

ZURE DENBORATIK ORDUBETE BEHAR DUGU... !!!!!!!!!

Zure denboratik ordubete behar dugu... itzuli egingo dizugu, soberan gainera.

kera daukate egun bakarrean edo bi egunetan parte hartzeko.

Zatoz Irungo Caritasera, ume ijitoei eskola-laguntza ematera. Laguntza astean bitan egiten da, astearte eta ostegunetan 17:00etatik 18:30etara. Hala ere, boluntarioek au-

ljiitoekin gauzatzeko Ekintza Sozialeko Programa. Jose Eguino k., 8-10 atzealdea - 20302 IRUN - Tel./Faxa: 943 020101 - programagitano@caritasgi.org

MURGIL ZAITEZ TEKNOLOGIA BERRIETAN !!!!

Aukeratu zure ikastaroa !!!!

Google Apps

Zure antolaketa pertsonala edo enpresakoa erraztuko dizkizuten Google tresnak zeintzuk diren ikas ezazu.

Oinarrizko Internet

Internet munduan sar zaitez., pc bat zer den ezagutu, nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasi, beste ezagutza batzuen artean.

.Ofimatika - Software Librea

Ofimatika munduan sar zaitez. Software librearen baldintzak, baimenak, abantailak eta desabantailak...

Sare Sozialak

Harremanetan jarri eta dokumentuak partekatu, ezagutzen dituzun pertsonekin, sarearen bidez.

Irudia

Sormena askatu GIMP tresna erabiliz.

ZUZENEKO eta URRUTIKO prestakuntza

.KZgunea Irun

- CBA Kultur Gunea - San Juan Harria Plaza, z/g - tutor.iruncba@kzgunea.net
www.kzgunea.eus

Horario: astelehenetik ostiralera 16:00 - 20:00

- Pio XII Plazan, 2 behea
tutor@kzgunea.net - www.kzgunea.eus
Horario: astelehenetik ostiralera 09:00-13:00 / 16:00-20:00



LAN BILA!



iGaztetik egunero lan eskaintzak biltzen dituzte eta dokumentu batean biltzen dituzte. El Diario Vasotik, Lanbidetik, Redtrabaja@tik, Interneteko hainbat ataritatik, Udaletatik, eta abarretatik lortutako lan-eskaintzak izaten dira.

EGUNERO berritzen da! (astelehenetik ostiralera)

Informazio gehiago jasotzeko:

<http://www.irun.org/igazte>

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Erreala munduan, Kizilua, Desdi nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Biscaya, Zubioga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Poste en forma, Erreala munduan, Kizilua, Desdi nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Biscaya, Zubioga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Poste en forma



IRUNDAIA IRUN HONDARRIBIA



Erreala munduan, Kizilua, Desdi nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Biscaya, Zubioga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Poste en forma, Erreala munduan, Kizilua, Desdi nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Biscaya, Zubioga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Poste en forma

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zubioga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Poste en forma, Erreala munduan, Kizilua, Desdi nueve metros, testapasañdo, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Biscaya, Zubioga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Poste en forma

Irailak 2

Zer? Memoria ekitaldia, hiriarren sutearen 80.urteurrenean. Irungo eta Hendaiako udalek parte hartuko dute.

Non? Abenida zubian.

Ordutegia? 12:00etan.

Prezioa? Doan.



Irailak 2

Zer? Zineforuma.

Non? Landetxa Auzo Elkartean.

Ordua? 19:30etan.

Prezioa? Doako sarrera.

Irailak 4

Zer? Kromoen trukaketa. Bildumako kromoak eta /edo panpinak, gaur egungoak edo aspaldikoak. Bildumak: La Liga, Animes, Star Wars, Minnie Mouse, Hello Kitty, Transformers, Abatons, Gogos, Bungees, Invizimals, Pokemon, Adrenalyn...

Ordua? 12:00.

Non? Luis Marianon (Co-reos-en bulegoaren ondoan).

Irailak 8

Zer? Autobusa Guadalupeko Bederatziurrenera.

Ordua? 7:00etan irtengo da Dunboako anbulatorioetik.



LAPURITURRI "ORIENTAZIOA, IPARRORATZA ETA MAPA" (ERLAITZ)

Noiz? Irailak 4, igandea.

Seigarren urtez Lapuriturriko informazio puntuak kirol orientazioari buruzko hastapen ikastaroa eta ibilbidea eskainiko du irailaren 4ean. Irungo Udalak eta Behemendik kudeatuta eta Gipuzkoako Orientazio Taldearen gidaritzapean, bertaratutakoek kirol orientazioari buruzko oinarrizko aspektuak ikasiko dituzte, baita praktikan jarri ere.

GOTeko lagunen eskutik, parte hartzaileek, hasteko, mapa eta iparrorratza erabiltzen ikasiko dute. Ondoren, bai bakarka edo taldeka, bakoitzak bere abilezia jarri beharko du praktikan, zailtasun ezberdineko ibilbidea burutzeko helburuarekin. Ikastaroa haur, familia, gazte zein helduentzat zuzendua dago.

OHARRA: Arropa eta zapata eroso eta egokiak mendian ibiltzeko ekarri behar da.

Ordutegia? 10:00etatik 13:00era, gutxi gorabehera.

Izena emateko? 010 edo 943505152.

Prezioa? Doan.



Prezioa? 1,50 euro.

Irailaren 18ra arte

Zer? Fuensanta Ruizen pintura erakusketa.

Ordutegia? Asteleheneetik larunbatera: 18:00-21:00; Igande eta jaiegunak: 11:30-13:30

Non? LABORAL KUTXA aretoa, Colon Ibilbidea, 13

Prezioa? Doako sarrera.

Urriaren 16ra arte

Zer? "Revisitando a Zumeta" erakusketa.

Ordutegia? Asteazkenetik larunbatera 18:00-21:00 / Igande eta jaiegunak 11:30-13:30

Non? Menchu Gal aretoan (Urdanibia plazan).

Prezioa? Doako sarrera.

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705
 info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

<p>Pisua salgai Irun Kolon Azalera 150 m², 3 gela, bainugela 1, 2 koinatu, egongela, sukaldea, 3 balkoi, hegaztekorantz, eguzkitatu. ref: 04472 195.000 €</p>	<p>Pisua salgai Mendais Azalera 85 m², 2 gela ikuratu, bainugela, koinatu, egongela, sukaldea, beraria, trasterokua, berogailu elektriko, hegaztekorantz, eguzkitatu eta hobi polifun. Aparatua barne. ref: 03511 165.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun Azken-Portu Azalera 88 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, koinatu, eguzkitatu, beraria eta hobi polifun. Eusko/Ormaiztegui ref: 04457 179.000 €</p>
<p>Pisua salgai Irun Larrehaundi Azalera 77 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoi, trasterokua, beraria. Erabilera eta pisu errentagarriak. ref: 04464 125.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun Belaskoentzen Azalera 70 m², 3 gela, bainugela, egongela sukaldearekin, 3 balkoi, trasterokua, eguzkitatu, beraria, hegaztekorantz eta oso eguzkitatu. ref: 04493 145.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun Kolon Azalera 90 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, beraria, trasterokua, eguzkitatu, trasterokua eta 41 m²ko terraza. ref: 03597 230.000 €</p>
<p>Pisua salgai Irun San Miguel Azalera 103 m², 3 gela, bainugela, koinatu, egongela, sukaldea, balkoi, go berokuntza, eguzkitatu, trasterokua, eguzkitatu eta hobi polifun. ref: 04481 235.000 €</p>	<p>Pisua salgai Irun Aido-Zaharra Azalera 60 m², gela 1, bain. gela 1, egongela, sukaldea, beraria. Erabilera eta pisu errentagarriak, 2. pisua eguzkitatu gabe. ref: 04384 90.000 €</p>	<p>Jatetxea salgai Irun Olaberria Labeko Etxea Azalera 770 m², apartokorik, beraria, jatetxea apartu, bi etxebizitzak eta, bakartak 70 m²ekin. ref: 04250 Kontsultatu</p>

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK ETA LOKALAK GUREKIN

**HERRI
JAKINTZA**
euskaltegia

IKASI EUSKARA HITZ HEMAN EUSKARARI!

Maila guztiak

Hizkuntz eskakizunak

HABE titulu ofizialak

EGA | IVAP | IRALE

Guraso taldeak

**Matrikula
zabalik**
2016/17

%100 diruz lagundua

Matrikula:

11:00etatik - 13:00etara

17:00etatik - 19:00etara

Irunen,
zuk
euskaraz!

Nafarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302)

Telefonoz ere matrikulatu | 943-635-266

herrijakintza@gmail.com



**HERRI
JAKINTZA**
euskaltegia

HADE

